


Añana

Amamengandik bilobengana



Arabako Herriak



A
Ñ
A
Ñ
A



Añana

Añana paisaia bitxi eta erakargarri batean sortu zen, begirada luzatzea erraza ez den aurkintza. Gatz Harana txundigarria da, bitxi industrial bat 7.000 urte baino gehiagoko historia duena. Haren morfologia arkitektonikoa, ubide, gaztoki eta dorla edo larrainen sarekuntza herrikoek ondo ezaguna duten labirintoa da.

Milaka urteko iturburuetatik isurtzen den gesalerean “urre zuria” erauzi beharrez herriko hainbat gizon-emakumeren belaunaldik bere bizialdi osoa eman izan du. Herritarron etxeak xaloak dira, kaleak estu eta aldapatsuak. Bat edo bat nabarmentzen da, besteen artean, aitzinaldeko harri landuetan, goian, armarria dadukalako; antzinako gatzaren jabeak ziren, nonbait.

Egun, gaztokiak Añanako Gazkinen Elkartearenak dira, Gatzagak deritzona alegia, jabe guztiek osatzen dutena. Gatz Harana Fundazioak kultur eta ondasun paisaia hau berreskuratzeko eta biziarazteko ardura du, munduan direnetan garrantzitsuenetako bat baita.





60 hamarraldiko urteak. Asun gazkin lagunekin, jutezko zakuak buruetan gatza eroaiteko. (Argazkia, Gatzagak Gazkinen Elkarteak utzitakoa)

Amamarengandik bilobarengana

Lehen eta orain

Asunción Iturralde- rekin

Añana



A black and white photograph of a man in a field, possibly a farm or construction site. The man is shirtless and wearing striped shorts, looking down at something in his hands. The background shows a field with some structures and trees. A teal circle is overlaid on the left side of the image, containing a quote in Basque.

“

*Guztiok
gazkin
egin ginen”*



Bizitza larrainean

*Argazki-oina: Asunen semeak ere
dorletako lan nekagarriari ekiten*

Bere asabak noizdanikoak diren jakin ez, baina Iturralde-tarrak, Asuncion orobat, gesaltzan eskuz lan eginez jaio eta bizi izan ziren. Guztiak gazkin. Senarra halaber, eta honen antzera Añanako Gesaltzan sortu beste hainbat.

Hamar urteko zela, eskola atzean utzi zuen, ez hala ere luzaroan joan izanagatik, eta gatz-larrainean, hots dorletan, laguntzen hasi zen, ura irabiatzeko bazen ere. Lau urte geroago, hamalau zuelarik, gazta zakuetan





“

*Hamar urteko zela,
eskola atzean utzi
zuen”*

idokiten zuen, biltegieta eraonez. Egunean hogeituroanaldi. Hasieran hogeita bost kilo, soina sendotu eta gero berrogeita hamar.

Ez zion inoiz lanari utzi. Apiriletik urri-
ra bitartean, atsedeen-egun bakar bat
ere ez. Herrian inork ez zuen. Uzta-
garaia zen, orduan larrainetan beharra
eta kantuak ere bai.

Jabeak

XX. mendearen azkenaldian gizon-emakume gazkinak, urteetan lan egindako larrainen jabe egin ziren, erosirik.

Jabe handiak beti izan dira, batzuk baina ez beredin, ez asko. Beste guztiak, gehien-gehienak, lan eta lan aritu izan dira eta ordainetan dirua, guti, jaso ukan dute.

Asuncionez gogoan du gatz kiloko, lepoan hartu eta gordetegira eroaiteagatik, pesetako berrogeita hamar zentimo ordaintzen zietela.

Gainera, nekazari bai baina lugin bihurtu zen, eta abeltzain ere bai, abere zaintzan ere ikasi baitzuen, gesaltzan bustitzetik alde egiteke, ordea. Hiru seme-alaba izan zituen, etxean bertan jaio zirenak, herriko medikuaren laguntzaz.

1943. Trabuketea. Argazki hau Gatz Harana Fundazioak utzi du.
Argazkilaria: E. Guinea





“

*Zuk dorlak
daduzkazu;
urtero gatza
emaiten
dizute”*

“

*Gesaltza udan
atsegin dut,
bertan bizitza
erraza baita”*

Azkenaz goiti, larrain bat edo bat erosi ahal ukan zuten, eta diru pitin bat gehixeago irabazten hasi, beti putzutik ura idoki, gesaltza busti edota bizkar gainean zaku astunak eroan eta hala bizi izaitearren.

XXI. mendean jabegoa bere ilobari irago dio, Gasteizen bizi eta ile-apaindegia duenari, hain zuzen.

Naiara, bere alaba Martina eta bere seme Urko, udaro sendi-etxera etorri ohi dira.





▲ *Asun lanean bere semeetako batekin*

◀ *Asun gaztea*

“Polittena senide-otorduak dira, eta beti kalean egoitea. Gesaltza udan atsegin dut, bertan bizitza erraza baita”.



Elkarrekin ekaizpean

Zena zela, bizitza hura polita zen, elkartasunean. Ekaitzak beldurgarriak ziren, zeren, euriak gesaltza urtzen, erre kara eroaiten eta galdu egiten baitzuen.

Euri erauntsia baino lehen, denak ziztu bizian, zein baino zein arinago. Lipar batez, di-da batean, lan handia galtzear zegoen, beraz ahal zen guzti-guztia bildu beharra zegoen, guti bazen guti. Orduan, elkartasuna baitezpadakoa zen, ezinbestekoa elkarri laguntzea, urgaztea, sorostea.

Sendi bakoitzak, berea bukatutakoan, ondokoari laguntzen zion, uzta txiki bat guttienez bilduko bazuen.

Gainera, kaltea ez zen ekonomikoa solik izanzen, ur gazi hura erre kara, eta ibaira, isuriz gero, iraganiko herri guztietan kalte eta gatza gaitz bihurtu zatekeen. Hala bada, bizitza azkar zihoan, begi itxi-ireki batean laso, batetik ortziak iragarten zuena eta bestetik lur azpiko iturburuak ekarten zuena.

▲ *Larrainetan bustirik.
Argazki hau Gatzagak Gazkinen
Elkarteak utzia*

70eko urteak.Asun adiskide batekin ibilian ►

Dantza bat, gutienez

Bizitza itzikika dastatzen zuten, igande arratsaldeetan, enparantzan dantzan eginez, lanak egin ondorean, ahalaz, elkartzen ziren lekuan. Dena seietan hasten zen.

Igande haietan inguruko herrietarean gazteak biltzen ziren, josteta eta ahusagailu bila, alberdania gero, eta etxera itzultzearren biderik bide oinez gau betean.

Asunciónek basajai edo erromeria zeinbait gomutatzen du; joan zen urrunena Paul edo Basquiñuelas herrietara.

Alabaina, zerbait ospatu behar bazen, hura uztaren biltzea zen, hemen “entroje” esaten diotena, hots, gatzaren jaia. Beronelako egunean, enparantza oro alai, aurretik atseden eta lasai-egunak ikusten baitziren.

“

*Gatzak jendea
batu-batu egiten
zuen”*





Komentua

Urteetan, Akreko Jaun Done Joanen komentuko serorak, Maltako Ordenakoak, hurran-hurran jateko urri, nahikoa ez sarri. Biziki behartsuak, emazteki gazteen laguntza ukaiten zuten eta hauek igandetan, astoa lagun, herriz herri lusagar edo patata eske joaiten ziren, haiei emaiteko.

XXI. mendearen bigarren hamarraldian, horma artean bizi diren serorak, lekai-meak alegia, esku bakarreko eriak beste, Gatz Haranean buru dagoen etxean, baina, aurreko mendearen erdialdera itzulirik, hogei bat serorak toki berean, Añanako aberastasuna eta izaera –gatzaz– zegoen horretan, bizitzeko behar egiten zuten.

“

*Urte batzuetan
jateko doi-doi
zedukaten”*

“

*Gatzak dena
harrotzen du, aiherr
diot, gorroto”*

Aztarrena ezabaezina

Urteak joan urteak etorri eta bizitako eta landutako eta gogor lan egindako bizitzak emaiten duen jakinduriarekin, Asuncioneek badaki gatzak min ere egiten duena, erre, marraskatu egiten duena, berari ere, hainbat urtez oina gesaltzan bustirik, ezabaezinak diren arrastoak utzi dizkio.

Azkenean, gatzaz ase eta bete da, bere bizialdiko egunak bete dituen zeraz okituxea, nazkatuxea dago. Leheneko etxeetatik ezin ezabatuzko aztarrena. Lehen urdaiak-eta gatzeztuak eseki ohi ziren tokietan, txerri-hilketaz gero, orain oro zaharkiturik dago, ihetxeturik, arrakalaz pitzaturik.

Gatzak kaltetu du. Egun, berriz, hemen-go gatzak sukaldari ospetsuek gorai-patzen dute, munduko onenetako bat delakoan.

2023ko negua ▶

Asun etxeko atalasean, 86 urteko zela





1 Gatz Harana

2 Añanako gatza

3 Hiri zaharra

4 Harresia

5 Enparantza



Añana

EZIN BESTE KOAK

- 6 Erloju-dorrea
- 7 Jauregia
- 8 Monasterioa

- 9 El Almacen
- 10 Artemiak Motogroup

Gatz Harana

7.000 urte baino gehiagoko gesaltza hauek munduko zaharrenak ei dira, eta berak ikuskatzeko ibilaldi gidatu oso arraitsua da.

Hasieran Ozeano handi batean izan zen, eta Neolitikoko garaian gatzak ekoizten hasi zen, geroago erromarrek dorlak, ubideak, larrainak eta eraiki zituzten, gesaltzatik gatzak idokitzen.

Erdi Aroan gatzak balio handiko gauza zen, haren jabetzagatik, monopolioa alegia, etenik bageko liskarrak eta borrokak sortzen ziren.

Añanako Erret Gatzagako Zaldun Jaraunleen Erkidegoa XII. mendearen lehen erdialdean eratu zen, gatzaren ekoizpenarekin salmenta antolatzeke helburua zuena. Aldi berean, herria ere berrantolatu zen, hiribildu eginez. XX.-aren lehen erdialdean arrakasta handia gertatu zen, baina geroago dena bertan behera uzteraino jaitsi zen, herri tikietarean hiri handietara joan eta bizilagunez ia-ia husturik.

2009an gazkinak Gatzagak izeneko elkarteak batu ziren eta kudeaketa Gatz Harana Fundazioari utzi zioten, urtean gatzagatik diru kopuru baten truke, iturburutik isurtzen den ur gaztaren jabetzaren eskubide baitzen.

Mendea amaitu aitzin, Xede bat ezarri zen, arrakasta handiz, larrainen berri-tzatze guztizkoa egiteko eta gazkinak itzul zitezentzat.

Gaur den egunean, Gatz Harana ikuskatzea esperientzia zirraragarria da.







2

Añanako gatza

Gehiegi esan bagerik, munduko onena eta aratzena, ez mikroplastikorik ez zurigarri-rik. Ekoizpena tipia da, eskuz egina, Japonian, esaterako, balioetsia, mila urtekoa eta aratza delako. Biltzen den uztaren %20 nazioarteko azoketan saltzen da.

Jatetxe handientzat gatz-garrangak, bero sapa dagoenean, gesaltza eroaiten duten

ubideetan berez eraikitzen diren estalaktitak, izen handiko txef-ek horrako gatz-harri horiek txalinetan edo erretiluetan karraskatzen dituzte.

Gatz-lorezko ezkatat haragi-arrainetan azken ukitua emaitako usatzen dituzte. Beste gatz-mota batzuk ere dira salgai: xehea, iturburukoa eta gesala.

Añanako Gatz Haranak urtean 200 tona gatz ekoizten du, gutti goiti-beheti. Ura lurrundu ondorean batzen da, beti egin ohi legez, makinari erabili bage.



3

Hiri zaharra

Berritze bidean dagoen Añana-Gesaltzako Hiribildua muru batean, mendixkan, Alfontso I.a Borrokalariak, Aragoi eta Iruñeko errege zenak, fundatu zuen, gatz-lanetan jarduten zuten inguruetakoa lagunez.

Egun Euskadin eman zen lehenengo foru-legea izan zen, eta Añana-Gesaltza lehenbiziko Erret-Hiria izan zen. Bertarean, Gatz Haran osoa begirapetu ahal da, eta hau Erdi Aroan garrantzitsua zen txit.

Egitamu irregularra, aldapa zorrotzak, orografiari atxikia, kaleak karrikak dira eta etxe batzuek alde bietatik atea. Ordudanik hona, herrigunea beheko alderantz zabalduz joan zen, larrainetarantz. Herri ttipia eta bakana da, gero!





4

Harresia

Harresiak perimetroan 580 bat metro du, garaiera 7 metrokoa, oraindik izan zenaren ia erdia zutik dago, nahiz eta zati batzuk beste eraikin batzuen egitean, irozgarri, hormei eusteko, usatuak izan, eta oro ikusgarri dago.

Harresi-barrutia irekitzeko bi ate zegoen, bide nagusiko mutur bietan, eta sartu-irtenetako erret kontrolak egiteko guneak ziren.

Garai haietan, ate gotortuak eta sargu hertsia guztiz axola larrikoak ziren bizilagunen babesteko, eta begirapetzeko aldi berean, gatz-saleroketa eginik nor bere zerga ordaindu ezik inork alde egin ez zezan.

Harresia berritzeko lan-pean dago.



5

Enparantza

Don Miguel Diaz de Tuesta izena du herriko enparantzak, edateko ura ekarri zuten mezenasen ohoretan; udaletxe neoklasikoa, antzinako neskatilen eskola, Gatzagak elkartearen egoitza, Turismo

Bulegoa, botika eta Hostel Plaza bertan dagoz; Hostel Plaza hau –aloka-toki eta taberna– gazkinek finantzatu zuten, terraza ederra du eta eguneko menua gozo-gozoa.

Enparantzán bolatokia ere bai, berezia, hemengo joko moldea gazkinen ahur-boloa da.




6

Erlojuko dorrea

Gatz Haran osotik ikusgai, dorreko kanpaien soinuak gesaltzaren banaketa markatzen zuen, iturburuko ura txandakatzeko ordua.

Udaletxe ostean dagoen Erlojuko Dorreak, gau eta egun, bere eginbeharra bete izan du, hau da: ordukal, dena elkarren artean itundurik, ura dorla batera edo bestera bideratu behar zen oren edo ordua jakinaraztea.



7

Zanbrana -Herran'da- rren jauregia

Etxandi eder-ederra, landa-barroko deritzon tankerakoa, XVII.aren azkenaldikoa, monumentu izendatua dago, eta egungo ugazabei esker –Angulo-tarrak– eta erakundeen laguntzaz berriztatu izan da eta barrua ikuskatzeko aukera dago.

Jauregia Pedro Zambranak eraiki zuen, 1697 inguruan, Gatzagako erret-administratzaile eta Italiako Milan-en erret-idazkari izan zenak; geroago, beste sendi aberats batek jarauntsian hartu zuen, Herran-darrak,

Ferrocarril Vasco-Navarroren sustatzaileetakoak.

Ikuska gidatuan, ezkaratzean dagoen gurdixka ikus daiteke, kupula edo ganga izugarria ere bai, barraskilo-eskailera mirabe-morroientzakoa, logeletako altzari zaharkituak, sukaldeko adreilu gorrizko zorua eta egur-labea, eta urmaela dadukan loretegia ere ikusgarri.

Horma batzuetan, ehiza-irudi batzuk erakusteko margo-lanak dagoz berde arsenikoekin.



8

Akreko Jaun Done Joanen Monasterioa

Erdi Arora itzul gintezke, Akreko Jaun Done Joanen Maltako Ordena misteriotsuarekin. Gatz larrainen inguruan dagoen mendian dago eta milaka gora-behera izan ditu.

Maltako Ordenaren Jerusalemgo Jaun Done Joanen lekaime Komendadoreen Erret-Monasterioa XIV.mendean eraiki izan zen. Orduko garai haietako Maltako Gurutzea dago -zortzi puntaduna, zorionbideen iku-

rra- monasterioko patioan, eta gainera komentu guztian usaintzen den Erdi Aroko lurrin misteriotsua. Serora geldikoiak, antzinateko Ordenako zaldun gurutzadazaleak bezala, bularrean beti gurutze hori agerian dabilta.

Monasterioko eta Añanako lagunen artean herremanak beti maitasunezkoak eta elkartasunezkoak izan dira. Herriko neskarik asko, munduko biziera bertan behera utzirik monasterioko hormatzarren barruan Jauna begietsiz bizitzera sartu izan dira. Monasterioko barrualde hori, patioa, eta eliza nola-nahi ikus ditzakezu.



9

El Almazén

Beatriz Pascual-ek bere sukaldean hartzen zaitu –harrizko etxetto bat da, gatz biltegi zaharra– eta berak bertan prestatzen duen menua eskaintzen dizu.

Jaleek –gehienez 15 lagun– Bearen inguruan jarrita, U itxura duen mahai batean, aulki garaietan.

Etxandere txef-aren jakiak betiko-betikoak eta aldi berean berrituak dira, show-cooking jostagarria, herriko gauze-kin eta Añanako Gatz mota batzuekin nahasian, moxalki-tartara edo kokotxak sasoian sasoiko bazkariekin erreak. Gainera, edalontziak, txolak, beti ardo onez beteak egoiteaz arduratzen da.

Giroa magikoa, hurren-hurren. Zeure buruan eroaiten uzten baduzu, oturuntza gozo eta alaiagarri bihurtzen da, barreak ere zantzoka. Lo egiteko aukera Madera y Sal landetxean duzu.

T. 628 175 079
www.almazensalinas.com



10

Artemiak Motogroup

Añana-Gesaltzan motorzale talde bat dago, 2008az geroztik eta urtean behin, maiatzaren azkenengo asteburuan indaba-jana egiteko biltzen da, 250 lagun inguru, eta, jakina, motor-ibilaldi bat egiten dute, eta revival musikaldi bat halaber.

Taldekide guztiek, larruzko txamarrean Gatz Harana irudikatzen duen partxe kustomizatua daramate. Custom motorrez ibiltea maite dutenentzat Añana inguruko eskualdeko errepideak berebizikoak dira.

Añana zenbakietan

Herriak

Atiega eta Gesaltza

Beste datu batzuk

178 bizilagun - 2024
559 bizilagun (XVIII. mendean)
4 km ubide
200 tona gatz urtean
5 taberna-jatetxe
4 aloka-toki

Añana

- | | | | |
|-------|--------|-----|------------|
| ◀ ● ● | 36 Km | ● ▶ | Gasteizera |
| ◀ ● ● | 69 Km | ● ▶ | Bilbora |
| ◀ ● ● | 130 Km | ● ▶ | Donostiara |
| ◀ ● ● | 128 Km | ● ▶ | Iruñera |

luze zabalera
21,64
km²



Arabako Herriak

Amamengandik bilobengana

Ezinbestekoak, isilpekoak, historia eta ohiturak, ibilbideak eta gastronomia

Gure herrien lehen-geroa protagonisten bitartez, bertan bizi eta lan egindakoek euren oroitzapenak utzi dizkigute, eta lehen haretatik gerorantz goaz. Amamek ohiturarekin ekanduak biziarazi dituzte, baserri zein landerri, gure Araba honetan.

Arabar askok bere herriaren historiari bere istorioa erantsi dio. Oroitzapenen zaintzaile, jakinguraz beteak eta eskuzabalak, isilak maiz, lurralde eder honen nondik-norako guztien berri eman digute.

Askotariko Araba, tokian-tokian berezia eta, honela ere, jendez eta bizierez batua.

Laguntzaileak:



Ayuntamiento de Añana
Añanako Udala



Gehiago jakitearren gure web-gunean



arabakoherriak.com